



«GUSTURA» UDAZKEN KULTURALAREKIN

Ikaztegieta antolaturiko kultur egitarauan, haur antzerkia eta kantuen saioa izan dira arrakastatsuenak 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-01-08

VIIURTEA 1.597.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ARANTZAZU AZPIROZ TXIRRINDULARI OHIA

«Txirrindularitza utzi eta beste gauzak egiteko garaia heldu zait»

BERASTEGI «Pena handia» duen arren, aurrerantzean bizikleta disfrutatzeko bakarrik hartuko du Azpirozek

EMAKUMEAK «Nesken txirrindularitza mundua oso gogorra da elite mailan; oso ona izan behar zara», dio 6



HITZA

Hondakin urak garbitzeko ur araztegi berria egingo dute

ALKIZA Gipuzkoako Foru Aldundiak 60.000 euro jarriko ditu, kostu osoaren erdia 5

Espainiako Kluben Txapelketan emaitza onak lortu ditu Danenak

HALTEROFILIA Danena Ak bigarren egin du, eta B taldeak bosgarren 6

Patxi Zeberio Txapelketatik kanpo, Ezkurra-Gazteluren aurka 40-39 galdu ostean

ERREMONTA Elduaindarra eta Agirrezabala 33-38 joan ziren aurretik 4



Salmenta puntuak:
Tolosako
OSKI arropa dendan
Leitzako
TORREA tabernan
eta HITZAren Tolosako
eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak
jertseak • fularrak
buffak...

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**



Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

eskaintzak
-%30

Laburrak**Gabonetan erabilitako izeiak bilduko dituzte gaur**

GIZARTEA ● Tolosaldeko Mankomunitateak Eguberrietan apaingarri gisa jarri diren izeiak biltzeko zerbitzua jarri du aurten martxan. Honekin lortu nahi dutena da, izeiak modu antolatatu batean jasotzea, ondoren berriro erabili ahal izateko, honetara, zuzeneko egiteko, hain zuzen. Honetarako, zuhaitzak zabor edukiontzien ondoan jarri behar dira gaur, eta arratsaldeko azken orduan pasako dira bila.

Bidarratik Otsondora Alpinu Uzturreekin

KIROLA ● Alpino Uzturre elkarteak hilaren 11rako mendi irteera antolatatu du. Txangoa Bidarrain hasi eta Otsondo mendatean bukatuko da. Pagomendi (698 m.), Artzamedin (926 m.) eta Lizartzu (793 m.) mendiak igoko dituzte. Iraupena bost ordu t'erdikoa izango da gutxi gorabehera. Autobusa Santa Klaratik abiatuko da 07:00etan. Bazkideek 11 euro ordaindu behar dute, eta bazkide ez direnek 13. Izen ematea elkarrean, 943 65 27 89an edo alpinouzturre@hotmail.com-en egin ahalako da.

Telefonoak Larrialdiak. ((112))**OSASUNA.****Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain**

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbola:** 943 006900**Amarozko dispena:** 943 672637**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536**Gurutze Gorria:** 943 674888**Villabona.** Anbulat.: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930**GARRAIOAK.****Renfe:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosalde bus:** 943 650621**Leitzarain autob.**: 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leitza):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858**Tolargi:** 943 650016**Iurramendi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

Urtarrileko aldapari aurre egiteko kultur ekitaldi ugari izango dira

Kultura » Atila y los Unos entzuteko aukera izango da etzi Bonberenean; honez gain, beste hainbat ekitintza izango dira hirian.

ESTI EZEIZA

Eguberriak jai egunez eta ekitaldi betetako egunak dira. Hauen ostean, lanerako itzulera eta eskolarakoa dator, egunerokotasunera, hain zuzen ere. Hau, gehientzat zaila izaten da, horregatik erabiltzen da askotan, urtarrileko aldapa esapidea. Baina goranzko bide hau xamurragoa izan dadin, hainbat ekitintza antolatu dituzte datozen egunetarako Tolosan.

Aurreko hilabeteetan izan duen harrera ikusita, oraingo honetan ere, zine emanaldiak ugariak izango dira. Hauetara joan nahi dutentzat, bonuen salmenta gaur amaituko da. Leidorreko leihatilan eskuratu daitezke 16:00etatik aurrera. Edozein saiorako bonuak 13 eurotan daude salgai (13 film, *Australia* barne), eta gaueko edo arratsaldeko bonuak 8 eurotan.

Aipatzeko da, asteburu honetan, ordutegian aldatuak egongo direla, *Australia* filmaren iraupenarengatik. Honenbestez, larunbatean, 19:00etan izango da iluntzeko saioa, eta ez 19:30ean. Igandean berriz, 18:45ean eta 21:45ean izango dira emanaldiak, ohikoa baino lehenago.

Aranburu jauregia

■ **'Basoa' erakusketa.** La Caixak babestutako eta Ingurugiro departamentuak antolatutako erakusketa ikusgai izango da hilaren 18a bitartean.

■ **Juan Jose Agirrerren erakusketa.** Lizardi Elkarteak *Tolosa bihotz begietan* izeneko margo erakusketa prestatu du. Hau otsailaren 14ra arte egongo da ikusgai.

Kultur Etxea

■ **'Geureak ere badira edingabe horiek'.** Bakarrik dauden adin txi-



Tolosako Bide Ertzean taldeak kontzertua emango du Leidorren, hilaren 16an, zuzeneko diskoa eta DVDa grabatuz. R.C.

kiko atzeritarren inguruko argazki erakusketa eta bisita gidatuak izango dira bihurtik hilaren 19ra bitartean.

■ **Odol-ematea.** Hilaren 19an, odol-emaileen hileroko odol ateratzea izango da.

Leidor aretoa

■ **Bide Ertzean.** Talde tolosarraren kontzertua eta zuzeneko DVDaren grabaketa izango da hilaren 16an, 22:00etan.

■ **'Zer duzu negarrez, Marie?'** Hilaren 17an, 17:00etan ikusgai izango da haur antzerkia. Aktore lana eta txotxongioren erabilera uzartzen dira bertan.

■ **'Mi primera vez'.** Hilaren 23an, Trasgo eta El Relo ekointzetxeek *Mi Primera Vez* antzezlaren gaztelazko emanaldia eskainiko dute. Saioa 20:30ean hasiko da.

Bonberenea

■ **Laket eta Atila y los Unos.** Bonberenea irratia iren inaugurazioan, etzi, 20:30etik aurrera, bi talde hauek izango dira entzungai.

■ **Une eta Ost.** Hilaren 16an, Bonbereneako eszenatoki gainean izango dira talde hauek, 22:30etik aurrera.

■ **Kauta eta Lain.** Hilaren 17an, 22:30etik aurrera entzungai izango dira Andoingo eta Villabonako talde hauek.

■ **Manent eta Seiren.** Hilaren 23an, 22:30ean izango da bi talde hauekin hitzordua.

■ **Captain Nemo eta Coll Circus.** Hilaren 24an, 22:30ean entzungai izango dira bi talde hauek.

Zinema

■ **Urtarrilak 8, gaur.** Zine Forumean, *California dreamin*-en jatorrizko bertsoa ikusgai izango da 19:00etan, eta 21:45ean.

■ **Urtarrilak 9, bihar.** 22:00etan *Australia* filma eskainiko dute.

■ **Urtarrilak 10, etzi.** 17:00etan, *Madagascar 2* filma izango da ikusgai. 19:30ean, eta 22:30ean berriz, *Australia*.

■ **Urtarrilak 11, igandea.** 17:00etan, bezperan bezala, *Madagascar 2* filma izango da ikusgai.

18:45ean eta 21:45ean berriz, *Australia*.

■ **Urtarrilak 12, astelehena.** Ikuslearen egunean, 20:30ean, *Australia* filma ikusteko azken aukera izango da.

■ **Urtarrilak 17, larunbata.** 19:30ean eta 22:30ean izango dira saioak egun honetan, eta *Crepusculo* filma izango da ikusgai.

■ **Urtarrilak 18, igandea.** *Lepel* euskarazko filma ikusgai izango da 17:00etan. 19:30ean eta 22:00etan, *Appaloosa* emango dute.

■ **Urtarrilak 19, astelehena.** Ikuslearen egunean, 20:30etik aurrera, *Appaloosa* filma izango da ikusgai.

■ **Urtarrilak 22, osteguna.** Zine Forumean, *Rios y mareas* filmaren jatorrizko bertsoa ikusgai izango da. 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak.

■ **Urtarrilak 24, larunbata.** 17:00etan, *Mision en Mocland* filma ikusgai izango da. 19:30ean berriz, *Un gran dia para ellas*, eta 22:30ean, *Gomorra*.

■ **Urtarrilak 25, igandea.** 17:00etan, *Mision en Mocland* filma ikusgai izango da. 19:30ean berriz, *Un gran dia para ellas*, eta 22:00etan, *Gomorra*.

■ **Urtarrilak 26, astelehena.** Ikuslearen egunean, 20:30ean *Gomorra* izango da ikusgai.

■ **Urtarrilak 29, osteguna.** Zine Forumean eskutik, *La soledad del corredor de fondo* filmaren jatorrizko bertsoa ikusgai izango da 19:15ean eta 21:45ean.

■ **Urtarrilak 30, ostirala.** *La ola* filma ikusgai izango da 22:30ean.

■ **Urtarrilak 31, larunbata.** 17:00etan, *Una amistad inolvidable* lana ikusgai izango da. 19:30ean, *El intercambio* eta 22:30ean, *La ola*.

Asteburu honetan, *Australia* filma ikusteko aukera izango da, baita Atila y los Unos entzuteko ere. SINADURA



Inguruan ditugun baso mota desberdinak zein diren eta ze ezaugarri dituzten ikus daiteke erakusketan. I.T.

Hilaren 18ra arte egongo da Aranburu jauregian dagoen 'Basoa' erakusketa bisitatzeko aukera; basoek duten ondarea eta garrantzia ezagutaraztea eta hauen inguruan herritarrak sentsibilizatzea da bere helburua.

Inguruan dugun ondarea

ERREDAKZIOA

Aranburu jauregian ikusgai dago egunotan La Caixa fundazioaren Gizar Ekintzako Ingurumen eta Zientzia programak sortutako *Basoa* erakusketa. Hilaren 18ra arte izango da ikusgai, «basoetako ekosistemen ondarea eta garrantzia ezagutaraztea eta jendea sentsibilizatzea haien kontserbazioaren inguruan» heburu duen lana. Tolosako Ingurumen Zentroaren eskutik egin du geldialdia erakusketa ibiltari honek Aranburu jauregian.

Zizareetatik zuhaitzetara

Euskaraz eta gaztelaniaz aurkezten diren azalpenekin, bosatal desberdinak daitezke erakusketan. Hauetan, besteak beste, basoak direla munduan dibertsitate handiena duten lurreko ekosistemak ikas daitezke; izan ere, milaka milioi urtetako bilakaeraren ondarea gordetzen dute; Iberiar penintsulan, esaterako, Europako paisaia ia guztiak agertzen dira, eta ondorioz, Europako biodibertsitaterik handiena jasozten du.

Bestalde, zuhaitzek klima erregulatzen dutela ere ikusi ahalko da, uraren zikloa funtzionamenduan edukitzen baitute, airea garbitzen dute, humusa sortzen laguntzen dute eta erositik babesten dute. Halaber, zuhaitzek nola egiten duten lan eta egurra zer den ere ikasiko dute bertaraten direnek; izan ere, ibilbide bat egiten du erakusketak *baso* izeneko ekosistema konplexu horretan barrena: humusa sortzeko ezinbestekoak diren zizareekin hasi, eta protagonista diren zuhaitzekin amaituko da.

Bada, beraz, zer ikasi eta ikusia Aranburun dagoen erakusketan, hain gertukoak zaizkigun basoen inguruan.



Animaliak hazien garraiolariek direla ikas daitezke. I.T.



Basoen nondik norakoak ezagutzeko gain, baso batean bezala sentiarazten zaitu Aranburu jauregiko erakusketak. I.T.

Euskal Astea osatzeko bilera, asteartean

Euskara » Hilaren 13an, 12:30ean izango da, Kultur Etxean; ideiak jaso nahi dituzte egitaraua osatu ahal izateko.

ERREDAKZIOA

Aste Santuaren aurretik Euskararen Astea edo Euskal Astea antolatzeko asmoa dute Tolosako Udalean. Horretarako bilera batera deitu dute, datorren asteartean, hilaren 13an, 12:30ean, Kultur Etxean. Bileraren helburua, «ideiak jasotzea da guztien artean egitaraua borobila osatzeko».

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzen da, baina, sasoi horretan Tolosan Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia izaten denez eta udazkenean, oro har, kultur ekitaldi ugari izaten direnez, euskararen inguruko ekitaldiak egunez aldatzea erabaki dute.

Hala egoki ikusi dute Udalean Aste Santuaren aurretik Euskal

Aste antolatzea, modu horretan gaiari eman beharreko garrantzia emateko aukera izango dutelako. Aurten, beraz, proba moduan antolatuko dute urteko garai horretan, eta erantzun ona izaten badu, aurrera begira egun horietan mantentzea dela asmoa azaldu dute.

Egitaurako hainbat ideia

Bestalde, Udalak dagoeneko hainbat ideia baditu aste horretarako. Esaterako, Tolosa Kantari ekimena egongo litzateke, eta Bertso Jazza ere bai. Antzerki bat ere izango da ikusgai aste horretan, Benito Lertxundiren kontzertua eta Andoni Egañaren hitzaldia. Gainera, martxoaren 28tik apirilaren 5erako tarte horretan Korrika ere pasako da Tolosatik, apirilaren 2an, 09:30ak aldera, hain zuzen.

Horiek Euskal Astearentzat dauden ideiak dira, baina, esan bezala, egitaraua borobildu asmoz biler egingo dute datorren asteartean. Bertara, parte hartu nahi duten herritarrak edo eragileak gonbidatu nahi ditu Udalak.

Voith-Gorostidiri buruzko bilera, gaur

Etxebizitza » 20:00etan izango da udaletxean, eta Sukia eta Amenabar enpresek eta Udalak ere parte hartuko dute.

ERREDAKZIOA

Voith-Gorostidiko etxebizitza egokitu zaizkien herritarren artean bilera egingo dute gaur, 20:00etan udaletxean. Bertan, Sukia eta Amenabar enpresa eraiki-

tzailetako ordezkariek eta Udaleko ordezkariek ere hartuko dute parte.

Dena den, Udalak deituriko 20:00etako bilera hau egin aurretik, Voith-Gorostidi taldekoek beste bilera bat deitu dute, 19:00etarako, Kultur Etxean. Bertara, etxebizitza egokitu zaie guztiak deitu dituzte, eta «kontratu berriaren inguruan eta beste zenbait gauzei buruz hitz egiteko» izango da. Kultur Etxeko areto nagusian izango da bilera.

Laburrak

Bai Euskarari zozketaren ordezkotzen zerbakiak

EUSKARA » Duela hilabete eman zituzten jakitera Bai Euskarari zuztagiriko zozketaren zerbakiak, baina zerbaki bakarra agertu da orain arte, eta 4. saria eraman du. Ondorioz, ordezkotzen zerbakiak atara dituzte. 10.743 zerbakiarentzat da lehenengo saria (Bidaide bidai agentzian, gau bat bi lagunentzako landa-turismoko etxe batean); bigarrena, 13.526rentzat (Mahala esnekiak produktuen, urdaiazpiko paleta bat eta gazta bat), eta hirugarrena, 536, (Aralar Kirolak den-dena forro polar bat).

Urteko Ohiko Batzarra egingo du Tolosa CFK

KIROLA » Tolosa CFK Urteko Ohiko Batzarra egingo du hilaren 23an, Kultur Etxean. Lehen deialdia 19:30ean, eta 20:00etan izango da bigarrena. Gaiak ondorengoak dira: aurreko aktaren irakurketa eta onespina; 2.008ko kontuak eta 2009ko aurrekontuak; klubaren informazioa; igerilekuaren balorazio ekonomikoa, eta galderak eta proposamenak. Ondoren, lehendakaria hautatuko da Aparteko Batzarrean. Hautagaiak hilaren 22a baino lehen aurkeztu beharko dira, klubaren bulegoetan.



'Magia teilatuetan' umeentzako antzerki saioko une bat. IMANOL GARCIA

«'Udazken Kulturala'-k bildu duen jende kopuruarekin oso gustura gaude»

Ikaztegieta » Haur antzerkia eta kantuen saioa izan dira arrakastatsuenak; datorren urtean II. Euskal Jaia egiteko asmoa dute.

NEREA URBIZU

Ikaztegieta *Udazken Kulturala* Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrerarekin bukatu egin zen. Dagoeneko antolatzaileek balantzea egin dute eta «orokorrean ondo» joan dela adierazi dute, herriarren parte-hartze handiarekin.

Ekitaldi batzuk azpimarratzekotan haurrei zuzendutako *Magia teilatuetan* antzezlanak izan da gogoratu dutena. Horrekin batera, *Ikaztegieta Kantuz* ere nabarmendu dute. Ostatuan elkartu ziren horretarako herritarrak, eta «depo zegoen. Jende guztiak kantatu eta parte hartu zuen. Askok ez zuten abesten aritu zen Klara herritarra ezagutzen eta sorpresa eraman zuten». Ekitaldi hau berria izan da aurretik eta «giro polita jarri zuten».

Drogei buruzko hitzaldia eman zuten Askagintzak eta 12 eta 25 urte bitarteko 19 lagun joan ziren; erantzun oso ona herri txiki batentzat. «Adinari begira oso zabala zen eta bi taldeetan banatzea agian komenigarriagoa izango zen, batzuk drogei buruz ez baitute informazio gehiegirik (12-13 urte), eta beste batzuk drogei buruzko gauza zehatzagoak jakin nahi dutelako». Baina bestela, «oso ondo» egon zen.

Gurasoei zuzenduta beste bat Drogei buruz egindako hitzaldiaren harira, bigarren hitzaldibatantolatzea pentsatu dute, baina oraingoan gurasoei zuzendua. Drogei ondorioak, eraginak, de-tekzioak, jarrerak, zalantzak... argitzeko izango litzateke. Hau Inauterien inguruan-edo egiteko asmoa dute Askagintzarekin.


Urriaren azken egunean Cheren inguruko dokumentala izan zen ikusgai eta hura izan zen *Udazken Kulturala* zabaldu zuena. Ondorengo ekitaldiak haurrentzako antzerkia, drogei buruzko

hitzaldia, helduentzako antzerkia, Herri Krosa (Herrigintzak antolatuta), *Ikaztegieta Kantuz* eta gaztain eta talo-jatea izan ziren. Guztiak ere ondo joan ziren.

Iaz «luzeegia» izan zen: «Hiru hilabetez ia astebururo ekitaldiak zeuden eta horrek jendea nekatu egin zuen». Gainera, «herri txikia izanik, nolabaiteko konpromiso handiagoa hartu behar da antolatutakoetara joateko». Horregatik, argi zuten aurretik gauza gutxiago eta denbora gutxiagoan antolatzea, eta asmatu dute, jendeak erantzun egin baitu.

Datorren urtean Euskal Jaia

Segurua dena, datorren urteari begira, data da eta honekin batera, adin guztiei zuzendutako ekitaldiak izango direla. Joan den urtean Euskal Jaia antolatu zuten lehen aldiz eta zalantzarik gabe, «arrakastatsua» izan zen. «Eskatzen duen lana kontuan izanik aurretik ez dugu egin», baina datorren urtean egiteko aurreikusitako zuten. Eta hala egingo dute, Ikaztegieta II. Euskal Jaia.



Makrobiotika garaian garaikoa eta lekuan lekukoa jatearen aldekoa da. HITZA

Makrobiotika, moztu eta josi eta sendabelarren eskolak

ERREDAKZIOA

Amezketan Aulas Kutxak 2009 ekimenaren baitan ikastaroak izango dira. Aurretik sukaldaritza makrobiotikoa, sendabelarren tailerra eta moztu eta jostearrenak (arropak konpondu) eskaini dituzte.

Zena emateko epea jadanik zabalik dago eta hilaren 19ra arte

dago aukera, Kutxan bertan izena emanaz. Honako bideak erabili daitezke: 902 54 00 40 telefono zenbakia edo www.kutxasocial.net ataria.

Herrian bertan ikastaroak egiteko aukera, beraz, izango da urtean zehar, baina horretarako izena eman beharko da, zehaztutako epeen baitan.

Zeberio II.a Binakako Txapelketatik kanpo

Elduain » 40-39 galdu zuten Ezkurra-Gazteluren aurka, Agirrezabalarekin batera; «Pena eman dit, baina hori da pilota».

ERREDAKZIOA

Tanto bakar batek utzi du erremonteko Tejados Aoi Binakako Txapelketatik kanpo Patxi Zeberio elduaindarra. Agirrezabalarekin osatutako bikotea beraz, finaletik kanpo gelditu da Ezkurra-Gazteluren aurka 39-40 galdu ondoren.

Partida gogorra izan zen eta borrokatua bezain ikusgarria. «Pena izan da, 33-38 irabazten ari ginen baina haiek arriskatu egin zuten dena ondo ateraz; horrelakoa da pilota. Agirrezabalak txapelketa oso ona burutu du eta horrek ere pena ematen dit». Finala Galarretan izango da etzi eta Ezkurra-Gaztelu eta Urriza-San Miguel ariko dira.

Bestalde, gaur Galarretan 16:00etan hasita lau erremonte norgehiagoka izango dira eta Altuna II.a ariko da hirugarrenean Agirrezabalarekin bikotea osatuz. Uterga-Etxeberria III izango dira.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokatzen dut Lekunberrin. 104 metro koadro lau logelarekin eta bi komunarekin. Lehenengo pixua, berogailuarekin. 480 euro. 636 17 16 24.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Mer-

kea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11 edo 634 91 94 82ra.

GALDUTAKOAK

■ **GPS bat.** Oargi mendi elkarteko kide batek Garmin GPS bat galdu zuen joan den urtarrilaren 3an, Larraizko parking-ean. Norbaitek aurkitu badu 653 734 803 telefono zenbakira dei dezala.



Intxurreko infantilak Shantin dotore

ALEGIA » Eguberrietako Shanti torneoan Alegiako Intxurreko infantilak garaikurrak eraman dituzte etxera. Oraingoan, neska infantilek txapela eskuratu dute eta mutilek finala galdu zuten. Iaz gertatu zenaren aurkakoa izan da, hain zuzen ere. PATXI RENOBALES

Moto istripuan hildako 16 urteko gaztearen kasua ikertzen ari dira

Villabona » Larrea auzoan ziklomotorra bidetik atera eta aparkatuta zegoen kamioi baten kontra jo zuen gazteak.

ERREDAKZIOA

Villabonako Larrea auzoan 16 urteko tolosar gazte bat hil zen pasa den astearte iluntzean, 21:30a aldera, hain zuzen ere.

Dirudienez, gazteak gidatzen zihon ziklomotorra kontrola galdu eta bidetik atera zen, bertan aparkatuta zegoen kamioi baten kontra jo zuelarik.

Ertzaintzak ez du informazio askorik eta lekukoena bila dabil, gertatutakoa argitzen ahalegintzeko, eta horretarako telefono zenbaki bat eman dute, bertan lekukoena laguntza jaso ahal izateko: 943539125.

Ur araztegi berria, hondakin urak garbitzeko

Alkiza » Gipuzkoako Foru Aldundiak 60.000 euroko diru laguntza emango dio Udalari, kostu osoaren erdia, hain zuzen.

ERREDAKZIOA

Alkizako Udalak hondakin urak garbitzeko Bida sistema erabiliko duen ur araztegi berria izango du. Araztegia abian jartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrek Departamentuak erabaki du 60.000 euroko zuzeneko diru laguntza ematea, kostuaren erdia, Alkizako Udalari lan horiegi ditzan. Aldundiaren laguntza arautzeko laster hitzarmen bat sinatuko dute Carlos Ormazabal diputatuak eta Jon Roteta alkateak.

Gaur egun, 320 biztanle dituen Tolosaldeko herriak antzeko

ezaugarriak dituen planta esperimental bat jarria dauka 14 biztanle adina hondakin ur sortzen dituen inguruko baserri batean, eta emaitza onak ematen ari da. Hori dela eta, erabaki da esperientzia pilotu gisa Alkizako herrigune osora zabaltzea urak arazteko Bida sistema.

Zertarako da Bida sistema?

Udalerrri txikiatarako eta familia bakarreko etxebizitzetarako bereziki pentsatuta dagoen sistema hori tratamendu biologiko bat da eta, funtsean, material naturalak dituen iragazki biologiko batez osatuta dago eta goiko geruzetan zizareek bioiragazkietan gelditzen diren hondakinak metabolizatzen dituzte.

Araztegiak hiru estratutan banatutako geruza ez-organiko iragazle ezberdinez betetako putzu

bat izango du. Hondakin ura araztegi iristean geruza iragazleatik igarotzen da. Prozesu horretan materia organikoa iragazkietan gelditzen da eta zizareen jarduerari esker degradatu egiten da eta hirus bihurtu; gero, hondakin lehori lurra ongarrizteko erabil daiteke. Iragai ondoren, ura berriz ere ubidera isur daiteke edo ureztatzeko erabili.

Antartidan

Bida teknologia nekazaritza eta elikadurako industrian ezartzen ari da, bereziki upategietan, hiltzietan, esne-industrietan, etab... Halaber, Hegoamerikako hainbat lekutan herrigune bakartuetako saneamendurako erabiltzen da, putzu beltzen edo minda-putzuen hautabide egokia delarik. Era berean, Txilek Antartidan daukan hegazkin-basean hautatu den aukera da.

Pello Odriozola «aske uzteko» exijituko dute berriro Plaza Zaharrean

Tolosa » Hileko lehen ostegunean egin ohi dute baina Urteberri Eguna zenez, gaurkorako atzeratu dute.

ERREDAKZIOA

Lizardi kultur elkarteko kideek hila-betero, hileko lehen ostegunean elkarretaratzea egiten dute, Plaza Zaharrean, Pello Odriozola euskal preso aske uztea exijitzeko. Hila-bete honetan Urteberri eguna zenez, gaur bilduko dira Plaza Zaharrean, 19:30ean.

Lizardiokoei salatu dutenez, «iazko uztailean 2an egon behar zuen kalean Pello, 20 urteko kondena oso-osorik bete baitzuen egun horretan. Espainiako justizia gezurrezkoak egiten dituen mirari horietako batek kondena luzatu dio bidegabeiki».

Z Zurea da hitza

«Ez dut arrazistatzat neure burua baina...»

Tolosa » «Kanpotik datozen gazteri den-dena ematen zaie eta nik hilabete bukaerara heldu ezinik...».

TOLOSAR BAT

Ez dut arrazistatzat nire burua, baina bizi dugun egoera onartezina da.

Gazte hauek kanpotik datoz, eta hemen geratzen direnean, etxe bat dute beraiantzat, bertan bizitzeko. Egunero jatekoa dute mahai gainean (gainera besteek prestatutakoa), ez zaie arroparik falta, esango nuke gainera ni baino arropa hobea erabiltzen dutela. Eta gainera ondo portatzen badira pagatxo bat omen dute.

Klase partikularrak ere jasotzen dituzte...

Laburtuta den-dena ematen zaie. Eta hala ere arazoak sortu beretik ez dute egiten. Kalean erabat liskarlean ikusten dira beraien artean, lapurretak egiten dituzte...

Gu beste herrialde batera joango bagina jasoko al genuke guzti hau? eta portaera hau izango bagenu, nola jokatuko lukete gurekin? uste dut honen erantzuna denok dakigula....

Hauek kanpotik datoz, kolpe zorririk ez dute jotzen eta dena

dute. Eta ni, egunero lanera, senarrarekin batera familia aurrera atera nahian eta hilabete bukaerara iritsi ezinik. Benetan ez dago esku-biderik!!

Eta gainera gauden egoeran, lana baldin badugu gustora egoteko moduan.

■ **Iñaki.** «Uste dut gauza bat ahazten zaizula edo ez duzula kontuan hartu nahi. Zuk esaten dituzun gazte hauek, adingabeak dira, hau da, 18 urte baino gutxiagokoak. Ez det zure kasua ezagutzen, baina, ez det uste 13, 14, 15, 16 urterekin lanera joaten direnik hemengo gazteak. Normalen eskolara joaten gara adin horretan. Nire ustez nahiko puntu garrantzitsua da hori, askotan entzun baitut dene-

tarik ematen zaiela eta abar eta abar. Ez det ulertzen, esan nahi duzuna da kalean utzi beharko lirakeela eta kitto? Adingabeak diren neurrian hezkuntza bat eman behar zaie legearen arabera, eta hori oso beharrezko ikusten dut. Horrekin batera, bizilekua eta jatekoa ere ematen zaie. Baina, ez det uste, zuk ulertarazi nahi duzun moduan, hotel batean bezala bizi direnik. Beste gauza oso desberdin bat da liskarrik sortzearena, eta askotan bi gauzak nahastean ditugu. Noski ez dagoela ondo iskanbilak sortzea, baina horretarako dituzten hezitzaileek hartu behar dituzten neurriak, gure kasuan, gure gurasoek egin zuten bezala. Eta horrek ez badu funtzionatzen, errazena izango da ume hauei errua botatzea, noski. Agian, bialibide gutxiegi dituzte hezitzaileek gazte guztiak egon ahal izateko. Mesedez, gauzak bi aldir pentsatzea komenigarria izaten da».

MAITE (TOLOSA)

Tolosan kolektorearen obrak hasi zirenean Donostia Iruñea bidea egiten duten Roncalesa autobusak, herrira sartzeari utzi zion Donostiarako norantzan. Lehenegon Kondeko Aldapa itxia zegoelako eta ondoren Tolosatik Donostiara joateko ezin zelako Tolosatik pasa. Bueno, neurri batean onartzen dut, baina zuk Tolosara ordaindu baduzu biletea, ez duzu nahi Amartzeko beste puntan uztea.

Baina bueno, orain inongo arazorik ez du autobusak herrira sartzeko, eta ala ere ez da sartzeko. Lehengo batean emakume batekin hizketan (80 urte gertu zituen), eta galdetu nion: autobusean etorri al zara? eta baietzkoa esan zidan. Eta

non utzi zaitu? galdetu nion. Beticok tokian, bonberotako hortan...

Esan omen zien txoferrari bidea irekia zegoela baina honek esan zien, bide hori aste baterako bakarrik ireki dutela eta ez dela hortik esateko. Barrena behar du gezurra joateko eta 80 urteko emakume bat Amartzeko rotondatik alde zaharrera oinez bidaltzeko.

Espero dut, mezu hau iritsi behar duenari iritsiko zaiola eta behar diren neurriak hartuko dituela... trafikoa guzintzat jarri badute horrela, arazoak sahiesteagatik, ba Roncalesarentzat ere bai. Eta Betelu, Arribe, Atallo, Lizartza edo beste herriren batetik, norbaitek Santa Klarangeratu nahi badu txoferraren obligazioa da sartzeko.

Tolosaldeko komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:


Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), hainbat eragilerekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilta.

Esakatzen da:

- Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculuma bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, urtarillaren 20a baino lehen.

JARDUNA S.L. Giza Baliabideak Saila - Martin Ugalde Kultur parkea - 20140 Andoain
Erreferentzia: THHK209



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa**ARANTZAZU AZPIROZ** Txirrindulari ohia

«Beste gauza batzuk egiten hasteko garaia iritsi zait»

Berastegi » Euskal Herrian nesken txirrindularitzako hiru talde daude, baina lasterketak gutxi dira Azpirozen ustez, horregatik erabaki du, besteren artean, txirrindularitza uztea.

REBEKA CALVO

Arantzazu Azpiroz (Berastegi, 1981) oso gaztetan hasi zen txirrindularitzan, orain 13 urte. Txapelketa ugari irabazitakoa da, horien artean Espainiako Txapelketa 2002an, baina «gauza gehiago egiteko» unea ere iritsi zaio. Nesken txirrindularitzaren mundua oso gogorra dela dio eta pena ematen badio ere orain lehiaketak utzi eta bizikleta disfrutatzeko bakarrik hartuko du.

Orain gutxi iragarri duzue txirrindularitza uztea erabaki duzu, maila profesionalen behintzat, zer dela eta?

Urte asko daramatzat honetan eta beste gauza batzuk egiteko unea ere iritsi dela iruditzen zait. Urte asko eman ditut astebururo toki desberdinetara joaten, lasterketa desberdinetara joan-etorrian... Sakrifizio asko egin behar izan ditut eta horregatik erabaki dut uztea. Jarraitzeko gogoia ere banuen, hala ere, baina beste gauza batzuk egiten hasteko garaia iritsi dela iruditzen zait.

Maila profesionalen aritzea oso gogorra dela, alegia.

Polita da, baina oso gogorra. Ekipo profesional batean nongoen eta horrek lan asko eskatzen du. Entrenatzeko eta aritzeko gogoia ere banuen, baina beste gauza batzuk ere egin nahi ditut.

Kontatu al daiteke zeintzuk diren gauza horiek?

Bizikletarekin jarraituko dut, baina lasaia eta disfrutatuz. Batez ere etxean eta lagunekin denbora gehiago eman nahi dut, gozatu nahi dut eta orain arte egin ez dituzdan gauzak egin.



HITZA

Nola ibili zinen azken denboraldian?

Oso ondo, gustura. Azken urteetan urtetik urtera hobetzen joan naiz eta hori oso pozgarria da. Baina panorama ez dago oso ondo eta horrek ere zer pentsatua eman zidan, baina erabakia ez dut horregatik bakarrik hartu.

Txirrindularitzatik bizitzea zaila dela esan nahi duzu?

Bizkaia-Panda taldean jarraitzeko aukera banuen, baina nesken soldatak ez dira oso altuak, nahiz eta urtea pasatzeko dirua ematen dituzuten eta gastuak ere ez diren oso altuak izaten, baina aurrera begira ez dut panorama oso ondo ikusten. Nesken mailan honetaz bizitzeko oso ona izan behar zara eta horrek ere izan du zerikusia nire azken erabakian.

13 urte hauen balantzea egingo al zenuke?

Oso balantze positiboa da; lasterketa asko irabazi ditut, lagun asko egin ditut, toki eta kultura berri asko ezagutzeko aukera izan dut... Errepidean, hala eta guztiz ere, gaizki ere pasa izan dut, baina horiek orain ahaztu egin ditut eta gauza positiboekin bakarrik gertatzen naiz.

Ba al duzu lasterketa edo sari-tunik?

Denak izaten dira bereziak, baina 2002ko Espainiako Txapelketa eta Kanadara mundialera joan eta Joaneke hirugarren egin zueneko ditut gogoan bereziki, izan ere ni talde horretan nongoen eta garai-pena nirea izango balitz bezalakoa izan zen.

Zer esan dizute etxekoek eta lagunek?

Pena handia eman die, batzuk jarraitzeko ere esaten didate, baina erabakia hartu dut jada.

Lan txukuna egin zuen Danenak Espainiako Kluben Txapelketan

Zizurkil » Gijonen abenduaren 20an izan zen Erregearen Kopan Danena Ak bigarren egin zuen eta Danena Bk bosgarren.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo halterofiliako Danena taldea oso ondo aritu zen pasa den abenduaren 20an Gijonen izan zen Espainiako Kluben Arteko Erregearen Kopan.

Bi taldek hartu zuten parte; Danena Ak eta Danena Bk eta bigarren postua eta bosgarrena eskuratu zuten, hurrenez hurren. Lehen

saria Kanariar Uharteetako Escuela Tinerfeñak eraman zuen 2.596,50 puntu eskuratuta. Danena Ak 2.474,53 puntu eskuratu zituen eta Danenak Bk aldiz, 2.146,35 puntu.

Horiek horrela, Zizurkilgo taldeak «inoiz Euskadiko eta Espainiako taldeek lortu ez dituzten emaitzak» lortu dituztela esan du eta horregatik «pultsulariek, direktibakoek eta zaleek» sariak Jon Tecedorri Aguinagari eskaini nahi dizkietela esan dute. «Nahiz eta bera gure artean ez egon, bere indarrak eta oroimenak emaitza hauek lortzera bultzatu baikaitu», gaineratu dute.



Danena taldeko kideek Jon Tecedorri eskaini nahi dizkiete sariak. HITZA

Laburrak

Bizi-Nahik hilaren 11n egingo du batzarra

IBARRA » Ibarako Bizi-Nahi Erretiratu en Elkarteak hilaren 11n 11:00etan egingo du batzarra. Bertan aurreko batzarreko akta irakuriko dute, elkartearen 2008ko ibilbide ekonomikoari buruzko txostena gainbegiratu dute eta ia zozko jardueren errepaso egingo dute. Batzordeko kide batzuren berri ere izango dute. Kideek bertaratzeko deia egingo dute.

Oinkarikoan aste honetako entseguak, bertan behera

VILLABONA » Villabonako Oinkari Dantza Taldeko arduradunek bertako 241 dantzarietako aste honetako entsegu guztiak bertan behera gertatu direla jakinarazi nahi diete. Izan ere, dantza taldea entsegu lokalik gabe geratu da eta horregatik ezingo dituzte entseguak egin. Udalaren eskutik berri gehiago jasotzerakoan jakinaraziko dutela ere argitu dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

E Elkarrizketa

KOLDOBIKA JAUREGI Eskulturgilea

Alkiza » Artelan artean mugitzen da Jauregi; bere ustez, «naturan dagoen edertasunaren indarrak bultzatzen du artelanen edertasun hori kanpora».

ONINTZA ENBEITIA (BERRIA)

Koldobika Jauregi (Alkiza, 1959) artista da, eta artea eta edertasuna elkarrekin doazela badaki. Eskulturak egiten ditu, baina ez zaio alferrik pasatzen eguneroko bizimodu ataileran. Gertatzen den orori adi dago.

Artea museoetan ondo bizi al da?
Artea edertasunaren zati bat baldin bada, non-nahi koka daiteke.

Kale guztiak ez dira egokiak artelan guztientzat!

Arteak, oinarri sakonean, ez du mugarik, ez eta kokapen zehatzik ere.

Eta artistak, nola bizi dira?

Nik ezagutu ditudan eta ezagutu izan ditudan zenbait langile baino hobeto.

Artistak aukeratzten du artelana, ala artelanak aukeratzten du artista?

Artista bakoitzak bere tresnak erabiltzen ditu, eta horrek ematen dio ikuspegi berezia. Naturan dagoen edertasunaren indarrak bultzatzen du edertasun hori kanpora. Egilea naturatik urruntzen denean ez dago edertasunik.

Egun batean Kutxak deitutako lehiaketa bat zegoela jakin zenuen eta...

Hamazazpi urte nituela hasi nintzen buru-belarri artea lantzen. Bi eskultura motxilan hartu (*Homage a Angel Ferrant* eta *Gu, Euskaldunok*), eta Donostiara abiatu nintzen baserritik.

Zer dauka iluntasunak zu hainbeste erakartzeko?

Lo gaudenean onartzen dugu beste errealtate modu bat badela, baina gaua berez da errealtatearen beste alderdia. Egunerokoan daude argia eta iluna, baina bat-batean ohartzen zara zerbaite gertatu dela eta iluntasunak zerbaite esan nahi dizula.

Edozer egiten da abstrakzioaren izenean.

Kontua da gure aurrean dugunak zer sortzen digun barruan. Arratsalde euritsu batek nostalgia sor dezake, baina hori ez dago inon margotuta. Artea formak soilik dira, ez da edertasuna.

Diru laguntza handiak daude artearentzat, baina bertako museo-en bilduma iraunkorretan euskaldun gutxi daude...

Gizarte bakoitzak bere mitoak sortzen ditu, eta horiek aberastasunaz hornitzen dituzte. Txikitari Donostiako etxe sarrera batean hala irakurtzen nuen: «Que mucho lo de allá, que poco lo de acá». Ba da-



N. IRASTORZA

«Museotatik kanpo dagoen edertasuna hobea da askotan»

kizu gauza bat? Euskal Herria ahazten ari da nondik datorren; horregatik, nora ezean dabil.

Harrizko basoa ez al da gogorre-gia?

Herberehereetako zelai batzuetan parke akuatikoko bategin nahi zuten, eta baso bat aurkitu zuten. Egur tratatuaun zebilen bat ezagutzen nuen, eta haren bidez eraman nituen zenbait enbor nire estudioara. Egur haiek azpifosilak ziren, harri bidean zeuden. Hori gero jakin

nuen; lastima haien lo geldia hondatu nuela!

Artelanak jartzen dizkigute kaleetan, baina ez dakigu zer esan gura duten!

Nola ulertu kolpe batean edozein sortzaile urte batzuko kostatu zaiona? Batzuetan nik ere ez dut ezer ulertzen, akaso ulertzeko ezer ez dagoelako.

Jan bat egiterakoan, zer etortzen zaizu burura lehenengo?

Ideiak ur tantak bezalakoak dira;

basoa bete arte ez da ezer sortzeko, eta horretarako prest egon behar duzu, konturatzeko basoa beteta dagoela.

Nola daiteke landu gabeko harri soila ikusten dugun lekuan eskultura ikustea?

Batzuetan pelikula bat ikusteko eseri egin behar duzu, eta itxaron hasi arte, pazientzia pixka bat ondo etorriko litzaiguke. Askotan, galeria eta museotatik kanpo dagoen edertasuna hobea da; eseri

eta jendea ikusi, lasai egon, eta edertasunak bere lana egingo du. **Guggenheimen lapurtu dutena euskal artisten eskuetan balego...**

Herri aberatsek artelan pobrea sortzen dute. Diru laguntzek artistak hondatzen dituzte. Euskal artistek, beren gobernu nagusiek bezala, gehiegi begiratzen diete kanpokoei.

Gurean dena bitan banatzen denez, Oteiza ala Txillida?

Dualismoaren arazoa horixe da... berea egin zuten, eta, zoritxarrez, ez dut uste herri honek ezer ulertu dienik.

Zer eman diote arteari?

Modernotasuna, eta, beren garai-

Oteizak eta Txillidak munduari erakutsi zioten euskaldunak hemen geundela

Ametsak, burua gobernatzen ez baduzu, mundu faltsu batean sartzen zaitu

ko beste batzuekin (Barandiaran, Laboa...), munduari erakutsi zioten euskaldunak hemen geundela.

Eta euskal arteari?

Beren lanak kanpoko erreferentziak izan arren, oinarri sendoa dute gure ohituretan, bidea erakutsi ziguten.

Zuk zeuk zer behar duzu sortzeko?

Bakea, lasai egotea.

Egin al duzu amets egin gabeko proiekturen batekin?

Ametsak, burua gobernatzen ez baduzu, mundu faltsu batean sartzen zaitu.

Zenbat denboran egoten da artelana buruan behar den lekuan irudikatu arte?

Artelanak eltxoan moduan ibiltzen dira bira eta bira. Urteetan egon daitezke, baina norbera prest egon arte ez da gertatuko.

Nola jakin?

Ez dago jakiterik, hori da sorkuntza.

Alkizan kabitzen al da arterik?

Artea nonahi dago. Edertasuna unibertsala da.

Normalean, artelan gehienak hiri handietan jartzen dira, txikiak ez dute aurrekonturik.

Herri txikia, nagusi txikia, artelan txikia.

Amets egin eta bidaiatzeko gonbita egin duzu inoiz. Zuk zeuk zer erkin amets egiten duzu, bada?

Barneko leize-zuloetaraino darabagun bidaiari hori, bai dela bidaiari! Norberaren barruan dago memoria, mendeetako estratuak gure zain.

Orain jaiotzarekin omen zabilta...

Ez dut arazorik izaten ahal dudanean edozein ekintzatan parte hartzeko. Bereizteak askotan gatazkak sortzen ditu, eta hori ez da ona.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** *Pello Lizardira!* elkarretaratzea Plaza Zaharrean 19:30ean.
- **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkarteak 75 urte beteko ditu aurten. Argazki zahar eta berrien erakusketa ari da prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Bazkideek, bazkide ohiek eta zerbait dutenek, elkartera eraman dezakete. Informazioa 655 738739 telefono zenbakian.
- **Tolosaldea.** Abian da Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ari da aurrera eramaten janari bilketa: arroza, lekaleak, pasta, hegala luzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak.

Antzerkia

- **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkarteak III. Poltsikoko Antzerki Lehiketa antolatatu du profesional zein amateurrentzat. Informazioa eta izen-ematea, www.asvinenea.com webgunean.

Zinema

- **Tolosa.** *California dreamin* filma jatorrizko bertsoan zine-forumean Leidor aretoan 19:00etan eta 21:45ean.

Ikastaroak

- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak fondoko eski ikastaroa antolatatu du hilaren 17 eta 18rako 1995-98an jaiotako haurrentzat. Irteera 7:15ean izango da eta itzulera igande arratsaldean. Izen-ematea, 685 776504 edo al-

2009ari kaixo dardarka

Tolosaldea-Leizaldea >>

Temperatu baxuak izan ziren atzo protagonista; adituek gaur ere berdin mantenduko dela diote.

ERREDAKZIOA

Hotzez. Halaxe eman diogu ongi-gietorria 2009. urteari. Ez omen da arraroa sasoi honetan baina guztion ahotan zegoen atzokoan hozta eta elurra.

Ohi bezala, fenomeno meteorologikoak bi aurpegi izan zituen; baretik, gure kale eta mendietan utzitako paisaia ederrak eta, bestetik, trafiko arazoak. Elurra kentzeko makinek gogor egin behar izan zuten lana gurean, errepide nagusietan eta bigarren mailakoetan, elurra kentzeko.



Albizturren egun osoan zehar egin zuen elurra; herria zuri-zuri zegoen. E. EZEIZA

pinouzturre@begira.com helbidetan.

Erakusketak

- **Tolosa.** *Basoa* erakusketa Aranburu jauregian, Ingurugiro departamentuak antolatuta, La Caixaren babespean.

Mendi irteerak

- **Tolosa.** Alpino Uzturrek hilaren 11rako mendi irteera bat antolatatu du Bidarrain hasi eta Otsondo mendean bukatuz. Pagomendi (698 m.), Artzamendi (926 m.) eta Lizartzu (793 m.) mendiak igoko dira. Iraupena bost ordu t'erdikoa da. Izen emateak elkarteak.

>> GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunikun.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzak 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren inguruan antolatutako ekitaldi hauetara gonbidatzen zaituzte.

AZAROAK 28, OSTIRALA

Garraxi Ixila antzezlan (Lasarteko Landaberri antzerki eskola). Xabier Lasaren Oroimenean *Lokartutako Ahotza* liburuaren oinarritutako obra.
Ordua: 22:00
Lekua: Leidor Zinema

ABENDUAK 1, ASTELEHENA

1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldea eta Leizaldean liburuaren aurkezpena, Mikel Errazkin Agirrezabala eta Joxemi Saizar Arostegiren eskutik. Ondoren lunch-a guztientzat.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Zerkausia

ABENDUAK 2, ASTEARTEA

Gerra Zibila Tolosaldean hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Mikel Errazkin Agirrezabala eta Jantxo Agirre Mauleonen eskutik.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Udaleko Pleno Aretoa

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

hitza

Oharra: Ekitaldi guzti hauetan 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburu eskuratzeko aukera izango da.